



Xabier Mendiguren Elizegi editorearen argazkia  
Egilea: Ane Villagran Arrastoa

**Xabier Mendiguren Elizegi (1964-)**, euskal idazle eta editorea Beasainen sortua da 1964ko maiatzaren 3an. 1988. urtetik hasi eta gaurdaino aritu da Elkar argitaletxean helduen literaturako editore gisa lanean.

Euskal Filologia Ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean (1987) eta ikasketa horiek Urretxuko Udal Euskaltegiko irakasle lanarekin bateratu zituen azken urteetan. Gerora, Filologia Hispanikoan lizentziatu zen UNEDen. 15 urte ingururekin hasi zen literaturaren munduan murgiltzen eta lehen sorkuntza lanak egiten. Gaztelaniaz idazten zuen, ordea, etxetik euskalduna izan arren oinarrizko hezkuntza eta giroa erdaldunak izan baitzituen haurtzaroan eta ondorioz, mugatua baitzuen adierazpidea euskaraz. Unibertsitatera sartu aurreko urtean piztu zitzaion euskararekiko grina eta orduan erabaki zuen Euskal Filologia ikasi eta euskaraz idazten trebatzea. Hala hasi zen 1982an, 18 urte zituela, euskarazko lehen idazkiak egiten. Urte beteren buruan, 1983an, argitaratu zuen “22 ebaki” izenburua zeraman bere lehen ipuina Susa aldizkariaren 9. alean. Garai hartan Mendigurenen belaunaldiko gazte asko hasi ziren euren sorkuntza lanak argitaratzen, Pako Aristi, Juan Luis Zabala, Inazio Mujika eta Iñigo Aranbarri,

besteak beste. Euskaltzaletasunaren eta euskal literaturaren modernizazio nahiaren ondorioz hasi zen belaunaldi gazte hau idazten, nolabaiteko ahalegin kolektibo baten baitan. *Sei ipuin amodiozko* (Susa, 1986) bere lehen ipuin-liburua 1986. urtean eman zuen argitara eta honen ondotik etorri ziren *Kanpotarrak maisu - Kultur ministrariak ez digu errukirik* (Susa, 1987) antzerki lana eta haur literaturako *Estitxuk pirata izan nahi du* (Elkar, 1987) lana. Era berean, 1986. urtean Argian astero liburu kritika idazteko lekukoa hartu zuen Mendigurenek artean Euskal Filologiako ikaslea zela eta Iñaki Caminok ardura utzi ostean. Garai hartan hasi zen Susa liburugintzan eta hastapen haietan argitaratutako liburu zenbaiten kontrazalak ere egin zituen Mendigurenek. Hala ekin zion Xabier Mendigurenek bere idazle ibilbideari eta jardunbide horrek zabaldu bide zion editore izateko atea, ordurako testuak zuzentzen eta kritikak egiten hasia baitzen.

1988ko urtarrilean hasi zen Elkar argitaletxean editore gisa lanean, 24 urte zituela. Elkarren orduan haur literaturako editore Joxean Ormazabal zen, bana helduen literaturako ez zen berariazko editorerik eta hutsune hori betetzera etorri zen Mendiguren. 80. hamarkadan euskal argitaletxeak ugaltzen hasi ziren eta testuinguru horren baitan Mendigurenen gisan gazte belaunaldi batek hartu zuen argitaletxe berri horietako editore lanaren ardura, Gorka Arresek Susan eta Inazio Mujika Iraolak Alberdanian, besteak beste.

Mendiguren Elkarren editore jardunean hasi zenean argitaletxeak Donostiako Aldamar kalean zituen bulegoak. Gerora, argitaletxearen hazkundearen ondorioz, hiri bereko Portuetxe kalera lekualdatu ziren eta egun bertan dute egoitza. Bildumei dagokienez, Elkarreko literatur bilduma 1983. urtean sortu zen eta Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* (Elkar, 1983) izan zen bilduma horren baitan kaleratutako lehen lana. Xabier Mendiguren argitaletxean lanean hasi zenerako 60 zenbaki zituen bildumak eta 61.a izan zen editore gisa argitaratu zuen lehena, Juan Luis Zabalaren *Gertaerei begira* (Elkar, 1988), berak zuelarik idatzi liburuaren kontrazala ere. Urte berean bideratu zituen Joseba Sarrionandiaren *Marginalia* (Elkar, 1988) saio lanaren eta Txillardegiren *Exkixu* (Elkar, 1988) eleberrien argitalpenak ere, besteren artean. Mendiguren Elkarren editore lanetan hasi zenean sortzen hasiak ziren nobela beltzari eta literatura erotikoari zegozkion azpibildumak, baina helduen literaturako bilduma nagusi bakar hori zuen argitaletxeak. Editore gisa Mendigurenek dibertsifikazioaren alde egin nahi izan zuen eta hasierako asmoa bilduma horren baitan azpisailak sortzea izan zen, koloreen arabera bereiziko zirenak. Aitzitik, epe laburrean irizpidea aldatu eta narratibari eskainitako bilduma horren paraleloan generoen araberako bilduma berriak sortzen hasi ziren, poesiari eskainitakoa, saiakera bilduma edo kronika lanak bilduko zituen Lekuko izenekoa, besteak beste. Mendigurenek hastapenetik argi zuen dibertsifikaziora behar zela jo eta xedea bilduma bakoitzak bere nortasuna izatea zela, bai edukiari zegokiona baina baita grafikoa ere.

Aipagarria da, bestalde, 1988an euskal irakurlegoa (eta idazlegoa ere, hein handi batean) euskaraz irakurtzen trebatzen ari zela oraindik eta argitaletxean jasotako lanen gehiengoa 100-200 orrialde luzekoa izaten zela. Egun, ordea, joera hori aldatu egin da eta lan mardulagoak izan ohi dira, oro har. Argitaratutako lanei dagokienez, Mendiguren editore lanetan hasi zenean jasotako lan horien artetik %30ak inguru ikusten zuen argia,

## **MHLI**

Ane Villagran Arrastoa: XABIER MENDIGUREN ELIZEGIren Soslaia

baina azken urteotan kopurua %20 ingurukoa da, idazlan gehiago jasotzen direlako, batetik eta argitaletxearen beraren argitalpen irizpideak ere zorrotz egin direlako, bestetik. Argitalpen kopuruei dagokienez eta testu liburuak bazter utzita, Elkar argitaletxeak urtero 50 liburu inguru plazaratzen ditu, batz bestea eta horietarik erdia izan ohi dira helduen literaturari dagozkionak, salbuespenak salbuespen, denak ere euskal sorkuntza lanak direnak.

Ane Villagran Arrastoa  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

## Bibliografia

ARMIARMA. “Xabier Mendiguren Elizegi”. En *Literaturaren zubitegia* [en línea], 2019. [Fecha de consulta: 25 de Abril de 2019]. Disponible en: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=99>

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA. “Mendiguren Elizegi, Xabier”. En *Enciclopedia Auñamendi* [en línea], 2019. [Fecha de consulta: 25 de Abril de 2019]. Disponible en: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mendiguren-elizegi-xabier/ar-94619/>

VILLAGRAN, ANE. “Entrevista personal al editor Xabier Mendiguren”. Inédita. 14/03/2019.

**Dokumentu hau aipatzeko:** Villagran Arrastoa, Ane (2019). “Xabier Mendiguren Elizegiren soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan* URL: <https://mhli.net/artxiboa/mendiguren-elizegi-xabier/>